

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saila**

Urriaren 24koa 979/2017 Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Foru Diputatuaren FORU AGINDUA. Honen bidez, bidaiariak eta salgaiak errepidez garraiatzeko diren zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko proben deialdia egiten da, eta aldatu egiten da probak egitearen ardura duen epaimahaiaren osaera.

Uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuko 15. artikulua ezarri du azterketak gutxienez urtean sei aldiz deitu beharko direla eta deialdi hori, gutxienez, lehen ariketa egin baino hilabete lehenago argitaratu behar dela. Hori dela eta, 2018. urtean egingo diren proben egutegia finkatu behar da.

Bestalde, 2009ko uztailaren 28ko 818/2009 Foru Aginduen bidez, lanbide gaitasunaren ziurtagiria lortzeko proben oinarri arautzaileak argitaratu ziren, eta 7. oinarriaren 1. puntuan ezarri zen nola osatu behar zen probak egitearen ardura duen epaimahaia.

Erakundearen antolamenduan gertatutako aldaketak direla-eta, beharrezkoa da epaimahaiaren osaera sailaren egitura organiko berrira egokitzea.

Horren ondorioz, batetik kontuan harturik zer aurreikusten duen Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.14 artikulua, Ahaldu Nagusiaren uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretua aplikaturik, eta, bestetik, aintzat harturik zer xedatzen duen Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesio Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 209/2015 Foru Dekretuaren 7 l) artikuluan Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesio Sustatzeko Foru Diputatu honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa: Hasierako prestakuntza egiaztatzen duen lanbide-gaitasunerako ziurtagiria lortzeko probak egiteko 2018. urteko deialdiak onartzea. Ziurtagiri hori beharrezkoa da Gidarien Araudi Orokorrean zehaztutako C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E kategorietako gidabaimenak izatea eskatzen duten ibilgailuak bide publikoetan gidatzeko. Hona hemen proben egutegia:

- Lehenengo deialdia: 2018ko urtarrilaren 12an.
- Bigarren deialdia: 2018ko martxoaren 2an.
- Hirugarren deialdia: 2018ko apirilaren 27an.
- Laugarren deialdia: 2018ko ekainaren 22an.
- Bosgarren deialdia: 2018ko irailaren 21ean.
- Seigarren deialdia: 2018ko azaroaren 30ean.

Eskaera-orriak aurkezteko epea:

- Urtarrila: 2017ko azaroaren 24tik 2017ko abenduaren 18ra.
- Martxoa: 2018ko urtarrilaren 22tik otsailaren 9ra.
- Apirila: 2018ko martxoaren 14tik apirilaren 6ra.
- Ekaina: 2018ko maiatzaren 14tik ekainaren 1era.
- Iraila: 2018ko abuztuaren 9tik abuztuaren 31ra.
- Azaroa: 2018ko urriaren 19tik azaroaren 9ra.

Bigarrena: 818/2009 Foru Aginduko zazpigarren oinarriaren 1. paragrafoa (epaimahaiaren osaerari buruzkoa) aldatzea; honela geratuko da paragrafo hori:



1. Honako hauek izango dira epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburu titularra:

— Merkatugaien eta Baimenen Ataleko burua.

Ordezko epaimahaiburua:

— Bidaia-arien Garraioa Antolatzeko Zerbitzuko burua.

Epaimahaikide titularrak:

— Salgai eta Baimenen Ataleko goi-mailako teknikaria.

— Emakida eta Ikusapenen Ataleko ikusapeneko teknikaria.

— Garraioak Antolatzeko Zerbitzuko lege aholkularitzako teknikaria.

Ordezko epaimahaikideak:

— Sistemak Modernizatzeko eta Foru Plan Informatikoa Kudeatzeko Ataleko burua.

— Emakida eta Ikusapenen Ataleko ikusapeneko teknikaria.

— Garraioak Antolatzeko Zerbitzuko lege aholkularitzako teknikaria.

Idazkari titularra:

— Salgai eta Baimenen Ataleko goi-mailako teknikaria.

Ordezko idazkaria:

— Emakida eta Ikusapenen Ataleko burua.

Hirugarrena: Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Foru agindu hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Interesdu-nek foru agindu horren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, foru agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta, edo, bestela, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikuluan ezartzen denarekin bat.

Bilbon, 2017ko urriaren 24an.

Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen
Kohesioa Sustatzeko foru diputatua,
VICENTE REYES MARTÍN